

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

UDAL BRIGADAK INDARTZEARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2021eko azaroaren 15ean Zerbitzu Orokorren Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko azaroaren 26an, EH Bildu udal taldeak kontrol-mozio bat aurkeztu zuen Udalbatzan bi eskaera egiteko: alde batetik, Udal Gobernuak brigaden egitura azter zezala zerbitzuan hobekuntzak egiteko eta, bestetik, LEP bat egiterakoan lehentasuna eman ziezaiola udal-brigaden gaiari.

Nahiz eta Udal Gobernuak kontrol mozioaren aurkako botoa eman zuen, brigadei buruzko azterketa martxan jarri zuen.

2016ko apirilaren 28an, txostenik aurkeztu ez zela ikusita, eta ikerketa noiz amaituko zen argi ez zegoenez, bigarren kontrol mozio bat eraman genuen udalbatzarrera ondorengoa eskatzeko: alde batetik, udal brigaden azterketarekin bat datorren kronograma bat zehaztea, azterketaren ondorioak aurkezteko epea ezarrita; eta, bestetik, Udal Gobernuak kronograma eta azterketaren amaiera data partekatu zitzala langileen batzordearekin, azken horrek behin baino gehiagotan eskatu duen bezala.

2016ko irailean, brigaden azterketari buruzko berririk gabe jarraitzen genuenez, berriro ere galdetu genion zinegotzi ordezkariari. Garaiko zinegotziak erantzun zigan azterketa atzeratu zela eta departamendu askorekin kontrasteak egiten ari zirela, azkeneko zirriborroa Lehendakaritzan zegoelarik, onspenaren zain. Azterketa eta haren ondorioak azaroan partekatuko zirela agindu zigan.

2017ko urtarrilean berririk gabe jarraitzen genuenez, berriro ere eraman genuen gaia batzordeetara. Bertan, zinegotzi-ordezkariak erantzun zigan brigaden zirriborroa prest zegoela eta langile batzordearekin bilera bat egingo zutela horren inguruan hitz egiteko. Zirriborroa aztertuta honako hau izan zen uneko langile batzordearen iritzia:

- 2017rako proposamenean ez zen enplegu publikoa sustatzen eta organigrama murriztea proposatzen zen: berezko organigraman 94 lanpostu zeuden eta Udal Gobernuak 86 lanpostuko muga proposatzen zuen.
- Margolarien brigada indartu gabe gelditzen zen.
- Ez zen LEP bat egiteko konpromisoa hartzen.
- Ez zen epe luzerako kronograma bat aurkezten, proposamena 2017ra mugatzen zen eta urte bakoitzean egon zitekeen aurrekontuarekin inprobisatzen zen.

Hori zela eta, talde honek interpelazio bat aurkeztu zuen 2017ko martxoko batzordeetan eta zinegotzi-ordezkariak hurrengoa adierazi zigan: 86 lanpostuko

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

organigrama egokia zela, ez zuela kronograma aurkeztuko eta LEP egitea legez arriskutsua zela.

Gauzak horrela, azkeneko urteetan ez da egin udal brigaden birgaitze prozesua era antolatuan, urtero aldaketak eta egokitzapenak egiten joan dira plangintzarik gabe eta ez da prozesua adostu langile-batzordearekin.

Aurreko hilabetean, LAB sindikatuak salatu zuen brigadak indartu gabe jarraitzen dutela, haien funtzioak pribatizatzen eta 6 lanpostu hutsetatik 5 bete gabe utzi dituela Udal Gobernuak. Gainera, Hiri Mantentze eta Zerbitzuen Zuzendaritzako 60 langileek haien kezka adierazi dute udal brigaden egoeraren inguruan eta honako eskaera hau aurkeztu dute erregistro bidez: *que se cubran todas las vacantes existentes en el actual Organigrama y, en el caso de que se considere necesario su redimensionamiento, se haga desde una visión técnica, negociada y consensuada con la Representación del Personal.*

Hori ikusita, azaroko batzordeetan zinegotzi ordezkaria interpelatu genuen eta haren erantzuna izan zen bi espazio daudela brigaden egoera aztertzeko (talde teknikoa eta erabakiak hartzeko beste gunek bat) eta ez zuen inongo zehaztasunik eman organigrama betetzeko asmoen inguruan, zein etorkizuneko helburuen inguruan ere.

Kontuan hartu beharreko datuak dira, udal brigaden % 70 bitarteko langileak direla, nahiz eta haien funtzioak egiturazkoak izan, eta udal brigadetan dauden hutsuneak enpresa pribatuak kontratatuta betetzen direla.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egiturazkoak diren lanak langile publikoen bidez bete ditzala.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Hiri Mantentze eta Zerbitzuen Zuzendaritzako 60 langileek aurkeztutako eskaerei erantzuna eman diezaiela.
- 3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari udal brigaden organigraman hutsik dauden plazak betetzeko pausoak eman ditzala eta lanpostuak finkatu ditzala.

Donostian, 2021ko abenduaren 15ean

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzia